

Lizarrako
Adierazpena

Gobernuak dio ETaren tregua bati ez liokeela sinesgarritasunik emango

Estrategia orokor baten barruko amarru bat besterik ez litzatekeela uste du PPk

Espainiako Gobernuak argi adierazi zuen atzo ETaren balizko tregua baten aurrean ez duela jarrerarik aldatzeko asmorik. Su-etena eman daitekeela onartu zuten Gobernuko zenbait kidek, baina tregua horri ez litzatekeela sinesgarritasunik eman behar. Beraien iritziz tranpa bat litzateke tregua horiz, Lizarrako Akordioarekin lotutako estrategia orokor baten barruan kokatu zuten.

Agentziak / Madril

ASKO hitz egin zuten atzo Espainiako Gobernuko ordezkariak ETaren balizko tregua baten inguruan. Jaime Mayor Oreja Barne ministroak ez zuen baztertu ETaren su-etena izatea, baina bere ustez, «abertzaleen fronte berriaren estrategiaren zati bat da». Lizarrako Akordioa bera «ameskeria» dela esan ostean, su-etena bat ere irudikeria horretako zati bat litzatekeela erantsi zuen. «Argi dago fronte nazionalistaren estrategia baten aurrean gaude, eta hor bakoitzak dagokiona jartzen du. Logikoa da ETak zer-bait egitea, baina orain zer-bait egitea tregua-tranpa bat da». Orain su-etena bat izatea irudikeria besterik ez litzatekeela errepikatu ondoren, Mayor Orejak esan zuen hori esateko nahikoa informazio baduela Barne Ministerioak. Ildo horretatik, esan zuen Gobernuak argi duela zer egiten ari den, eta ez duela bere politika aldatuko.

Mayor Orejaren ustez, «fronte abertzaleak bilatzen du Gobernuaren intransigentzia irudia ematea, azken batean komunikazio bataila bat da». ENAMen inguruan eman diren aldaketak ez



Jaime Mayor Oreja eta Ricardo Marti Fluxa prentsaurreko batean elkarrekin hitz egiten.

J. M. ESPINOSA / EFE

dira kasualitatea Barne ministroak dioenez: «Azken hilabeteetako polizi operazioen ostean eszenatoki aldaketa egin nahi du, eta hortik dator Lizarrakoa».

Josep Pique Gobernuko bozeramailea antzera mintzatu zen. «ETaren balizko su-etena ez luke sinesgarritasunik izango, eta Gobernuaren aldetik ez luke erreaktziorik mereziko, taktika tresna bat litzatekeelako. Behin betiko armak uzteak eta indarkeria amaitzeak bakarrik izango luke meritua», esan zuen. Irlandako Foroa ere kritikatu zuen Piquek. Haren hitzetan Lizarrako Akordioak ez du balio bake bideak irekitzeko, «aldiz, biolentzia estrategiari jokua egiten dio». Ajuria Eneko Itunaren defentsa egin zuen eta hura ahultzen duen guztiaren kontra agertu zen.

Ricardo Marti Fluxa Segurtasunerako Estatu idazkariak esan zuen ETaren tregua baten inguruan «ahalik eta hoztasun handienari» eutsi behar zaiola. Buruari hotz eutsi behar zaiola esan zuen.

«EAJren jarrera ETaren treguarekin justifika daiteke» • Juan Alberto Belloch Kongresuan PSOEren Justizia bozeramaileak azaldu zuen EAJren jarrera ETaren su-etena ere bakarrik justifika daitekeela. Bellochen iritziz, EAJk ez luke Lizarrako Adierazpena sinatuko ez balu jakingo ETaren tregua bat etorriko dela atzetik. Bere ustez, Lizarrako Akordioan baldintza hori ez agertu arren, horregatik egin zion Jaurlaritzak dei zuzena ETari armak uzteko.

Lizarrako agirian «astakeria» asko daude Bellochek esan zenez. Akordio horrek ez du EAJren ohiko jarrera jasotzen PSOEko buruaren hitzetan, HBrena bai zik. Adibide gisa aipatu zituen Frantziako Estatua eta Espainiakoa ados jartzeko egiten den eskaera. «Hainbeste astakeria daude eta abertzaletasun demokratikoa hainbeste makurtu da HB eta ETaren bidera, ezen azalpen bat bilatu behar baitzaio. Azalpen hori tregua bat izan daiteke».

Hain zuzen, Mayor Oreja asteartean elkartu zen Bellochekin ETaren balizko tregua baten aurrean sor litekeen egoera aztertzeko. Aurreko hilabeteetan ere egoera aztertzeko PSOEko zenbait buruzagirekin bilerak egin ditu Mayor Orejak berak esan zenez.

Premiazko bilera akordioari erantzuteko

JOAQUIN ALMUNIAK demokraten arteko premiazko bilera bat deitzeko eskaria egin zion atzo PPren Gobernuari, modu horretan Lizarrako Akordioari erantzun ahal izateko. Hala, Lizarrako Akordioari eta ETaren balizko treguari erreferentzia eginez, azaldu zuen PSOEek hainbat aldiz azpimarratu diola Gobernuari «elkarriketarako lehenbaila hasteko beharra». Atzo, beraz, eskaria berretsi zuen Almunia, eta «demokraten arteko premiazko bilera» bat

deitu eta zuzendu zezala eskatu zion PPren Gobernuari. Joaquín Almunia ustez, Euskal Herrirako bake prozesuaz hitz egiterakoan, «ETaren tregua bat ez da nahikoa, bakerako konprometua betirako ez bada». «Pistolen soinuaren zututeari uzten badiogu, biolentzia behin betirako uzteko konprometuz gabe, pistola horiek elkarriketarako guztiak zelatatuko dituzte», zioen PSOEko idazkari nagusiak.

Honela hitz egin zuen

Almunia ETaren tregua posible horri buruz: «Biolentzia behin betirako uzteak irtenbide negoziatu bati eman beharko lioke sarrera, eta horren bidez damututako terroristen bergizarteratzea lortuko litzake».

«Negoziazioetan pistolak dituztenekin batera negoziatzen dutenak pribilegiatuak izango dira», esan zuen Lizarrako Akordioa sinatu dutenei erreferentzia eginez. «Baina elkarriketa hori ez da demokratikoa; hala izateko, el-

karrizketak bakean eta zabalik dauden instituzioetako bideetatik egin beharko lirateke-eta», azaldu zuen.

Bestetik, bere alderdiaren kezka azaldu zuen PSOEko buruzagiak. Almunia esanetan, «kezka izugarria» dute Miguel Angel Blancoren heriotzaren ondorioz sortu zen «Errepublicanoen izpirituaren garaitik» gaur egunera bitartean emandako aldagaitatik, hots, Lizarrako Akordioa sinatu den egunera bitartean egon den aldake-

tagatik. Ildo horretan, adierazi zuen Lizarrako Akordioa sinatu dutenek «biolentzia bakarrik beharrezko» diren ideekin ados ez direnak isolatu nahi dituztela.

Esan zenez, «PSOEek ez du onartuko helburu politikoak biolentziaren bidez defendatzen dituztenek biolentzia erabiltzen ez dutenekin baino eskubide gehiago izan ditzaten». PSOEko idazkari nagusiaren ustez, horrek «demokratizazioa ukatzea» ekarriko luke-eta. X

erreakzioak

Jose Elorrieta ♦ ELAko idazkari nagusia

«Lehenengo tregua zibila da»

Elorrietaren ustez, Lizarrako Akordioa lehen «alde batean eta bestean» zegoen jendearen arteko «lehenengo tregua zibila» da. ELAko idazkari nagusiak esandakoaren arabera, «inflexio puntu bat» eman da, «elkarrekin agiriak izenpetzeko gaitasuna zutenik onartzen ez zitzaizkien pertsonen izenpetu dute eta». Elorrietaren ustez, «inflexio puntu honek lekua utzi behar die beste inflexio puntu batzuei, prozesuak aurrera jarrai dezaten». Esan zenez, euskal gizartearen presioa egiten ari da «atzeratze bultzatzen ez izateko, eta politikariek, eta gizarte erakundeek benetan norabide horretan bultzatzen». X

Joseba Egibar ♦ EAJko bozeramailea

«Akordioa guztiz demokratikoa da»

Joseba Egibarrek esan zenez, PP eta PSOE «kanpoan geratzen dira urrats positiboak egiten diren bakoitzean». Espainiako bi alderdi nagusiei esan zien euren jarrerarekin gainontzeko alderdiak eta buruzagiak «inhabilitatzen» dituztela. Bestetik, Lizarrako Akordioa defendatu zuen, «guztiz demokratikoa» dela esanez, eta Ajuria Eneko Itunaren hamargarren puntuarekin «bateragarria» dela azpimarratu zuen. Lizarrako Akordioa «ekimen positibo» bat dela, eta «espíritu konstruktiboarekin» burutu dela adierazi zuen. X

Juan Jose Lizarbe ♦ PSN-PSOEko idazkari nagusia

«Nafarren borondatea gutxietsi dute»

Lizarrako Akordioarekin «nafarren borondatea gutxietsi» dela uste du Juan Jose Lizarbek. «Lizarrako Foroan Nafarroarekiko mehatxu ezkutu bat dagoela uste dut», adierazi zuen, «eta mehatxu horren aurrean, herritar asko gaude —horien artean PSN— lurralde honetako instituzioen egitaraua defendatuko dugunak». «Beti defendatuko dugu hemengo herritarrek erabaki dezatela Nafarroa izan behar duena, eta ez euskal nazionalistek, gutxiengo txiki bat baitira hemen», gaineratu zuen. «Gure komunitate kanpotik Lizarrara denbora pasa etorri diren jaun horiei esan nahiko nieke, Ipar Irlandak Nafarroa eta EAEk baino askoz ere autonomia txikiagoa izango duela», esan zuen. X